

Dentsitate ezberdinetako lurralde-eremuen
elkarreragina euskararen ahultze eta
indarberritze prozesuetan:

Zonalde soziolinguistikoen arteko biztanle-trukea

Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)
eta Iñaki Iurrebaso Biteri (UEMA)

Azpeitia, 2025eko urriaren 16a



Kokapena

Hiztunen bizileku-mugikortasunaren eragina

Ariketa sinplea

Heldulekua

Zenbait gako



Arnasguneak

Eguneroko mintzajardun arrunta:
etxea-familia-auzoa-komunitatea

Belaunaldi arteko transmisioa:
hizkuntza gutxitua lehen hizkuntza gisa

Euskara nagusi den **eremu**
geoterritoriala: kontzentrazio
demografikoa



Hizkuntza-sozializazioa

Haurtzaroa eta nerabezaroan **hizkuntza-sozializazioa eta hiztun-profila finkatzea**: gaitasun, erabilera eta jarrera

Lehentasunezkoa. Euskararen biziberritze estrategian lehentasun

Testuinguru soziolinguistikoa:

Familiak, eskola, hedabideak eta kultur kontsumoa

Inguru hurbileko gizarte-sareak (lagunartea, herri-/auzo-giroa).



Nagusitasun-eremuak

Lurraldea sailkatzeko modu bat, hizkuntzen **erabilera-maila** kontuan hartuta.

Ekosistema soziolinguistiko osoaren adierazle izan nahi du. Gaitasuna eta erosotasuna ere, neurri batean, bere baitan.

Diagnosia egiteko oinarrizko ardatza.

Operatibizazioa (UEMA):

Euskararen erabilera hurbila* udalerrian	Nagusitasun-eremuak
%80-100	Arnasgune beteak
%60-79,9	Arnasgune erasanak
%40-59,9	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak
%20-39,9	Erdararen ez erabateko nagusitasuneko udalerriak
%0-19,9	Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak

**erabilera hurbilaren adierazle sintetikoa kaleko erabilera eta etxeakoarekin osatua*



Joera demografikoak

Azken urteotan

biztanleriak igoera (%10 20 urtetan)
euskaldunen multzoaren hazkundera
moteldu

Aurreikuspenak

biztanleriak hazten jarraitu (2036rako
+%4)

joerek bere horretan jarraituz gero,

geldialditik galera-fasera

euskararen ezagutzaren hedapenaren
erritmoa erdira

Arnasguneak desagertu



Bizileku-mugikortasuna

Eskala lokal edo hurbilekoa (migrazio luzeagoetatik bereizten da)

Etxez aldatzea. Ohiko etxea, eguneroko bizitokia.

Gizartearen egitura eta lurralde-antolaketa ulertzeko gakoak ematen ditu. (Demografian, geografian)



Iker-galderak





**Erdararen nagusitasun
handiko udalerriak**
(euskararen erabilera
<%20)

**Erdararen nagusitasun
ez erabateko
udalerriak** (euskararen
erabilera %20-40)

**Nagusitasun argirik
gabeko udalerriak**
(euskararen erabilera
%40-60)

**Arnasguneak
(erasanak eta beteak)**
(euskararen erabilera
>%60)







Iker-galderak

1. Zenbateko proportzioa osatzen du **ingurune erdaldunagoetatik** heldutako pertsonen hizkuntza-erabilerak, arnasguneetako **gaztelaniaren erabileran**?
2. Zenbateko proportzioa osatzen du **ingurune euskaldunagoetatik** heldutako pertsonen hizkuntza-erabilerak, erdararen nagusitasun handiko hiri eta herrietako **euskararen erabileran**?



Metodologia



Iturria eta lanketa

Espainiako Estatistika Institutuaren (INE)
2021eko “**Encuesta de Características
Esenciales de la Población y Viviendas**”
(ECEPOV)

Mikro-datuak. Berariazko datu-eskaria.
Hizkuntzari eta lurraldeari buruzko aldagaiak.

Unibertsoa: 2021 urtean bizitokia Hego
Euskal Herrian zuten 2.799.463 hiztun.

Lagina: Aipatu ikerketaren mikrodatuetan
azaltzen diren 27.763 erregistro.

Adierazle berriak. Oinarrizko estatistika
deskriptiboa.


1. Familiako eta lagunarteko
hizkuntza-erabilera
2. Norberaren **bizitokiari, jaiotokiari**
eta **gurasoen jaiotokia**
3. Bizitokien eta jaiotokien arteko
alderaketa



Datuen azterketa




Euskararen erabilera lagunartean **NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA**






Euskararen erabilera lagunartean NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA






Euskararen erabilera lagunartean NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA





Euskararen erabilera lagunartean NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA





Euskararen erabilera lagunartean

NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA

		Bizilekua				
		Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	Arnasguneak	GUZTIAK
Jaiolekua	Hego EHtik kanpo	0,3	0,6	5,0	9,7	0,8
	Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	2,4	8,5	27,9	33,4	3,4
	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	6,4	22,0	30,1	33,6	20,6
	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	11,8	24,2	46,7	44,3	39,3
	Arnasguneak	21,5	34,3	58,1	65,8	58,2
	GUZTIAK	2,1	15,3	36,2	51,9	8,7



Euskararen erabilera lagunartean NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA

Jaiolekua	Bizilekua					
	Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	Arnasguneak	GUZTIAK	
	Hego EHTik kanpo	0,3	0,6	5,0	9,7	0,8
	Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	2,4	8,5	27,9	33,4	3,4
	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	6,4	22,0	30,1	33,6	20,6
	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	11,8	24,2	46,7	44,3	39,3
	Arnasguneak	21,5	34,3	58,1	65,8	58,2
	GUZTIAK	2,1	15,3	36,2	51,9	8,7



Euskararen erabilera lagunartean NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA

		Bizilekua				
		Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	Arnasguneak	GUZTIAK
Jaiolekua	Hego EHTik kanpo	0,3	0,6	5,0	9,7	0,8
	Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	2,4	8,5	27,9	33,4	3,4
	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	6,4	22,0	30,1	33,6	20,6
	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	11,8	24,2	46,7	44,3	39,3
	Arnasguneak	21,5	34,3	58,1	65,8	58,2
	GUZTIAK	2,1	15,3	36,2	51,9	8,7



Arnasguneetan (beteak eta erasanak)

	Pisua Biztanlerian (%)	Pisua FAMILIAN nagusiki GAZTELANIAZ aritzen diren hiztunen artean (%)	Pisua LAGUNARTEAN nagusiki GAZTELANIAZ aritzen direnen artean (%)
NORBERA zonalde erdaldunagoan jaioak	41,8	71,8	72,8
GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde erdaldunagoan jaioak	54,5	83,0	81,8
NORBERA EDO GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde erdaldunagoan jaioak	69,4	91,6	90,8



Arnasguneetan (beteak eta erasanak)

	Pisua Biztanlerian (%)	Pisua FAMILIAN nagusiki GAZTELANIAZ aritzen diren hiztunen artean (%)	Pisua LAGUNARTEAN nagusiki GAZTELANIAZ aritzen direnen artean (%)
NORBERA zonalde erdaldunagoan jaioak	41,8	71,8	72,8
GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde erdaldunagoan jaioak	54,5	83,0	81,8
NORBERA EDO GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde erdaldunagoan jaioak	69,4	91,6	90,8



Erdararen nagusitasun handiko udalerrietan

	Pisua Biztanlerian (%)	Pisua FAMILIAN nagusiki EUSKARAZ aritzen diren hiztunen artean (%)	Pisua LAGUNARTEAN nagusiki EUSKARAZ aritzen direnen artean (%)
NORBERA zonalde euskaldunagoan jaioak	4,5	21,7	20,0
GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde euskaldunagoan jaioak	6,8	32,6	27,1
NORBERA EDO GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde euskaldunagoan jaioak	11,7	44,5	37,8



Erdararen nagusitasun handiko udalerrietan

	Pisua Biztanlerian (%)	Pisua FAMILIAN nagusiki EUSKARAZ aritzen diren hiztunen artean (%)	Pisua LAGUNARTEAN nagusiki EUSKARAZ aritzen direnen artean (%)
NORBERA zonalde euskaldunagoan jaioak	4,5	21,7	20,0
GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde euskaldunagoan jaioak	6,8	32,6	27,1
NORBERA EDO GURASOETAKO BAT GUTXIENEZ zonalde euskaldunagoan jaioak	11,7	44,5	37,8



Ondorioak

Eta zenbait gogoeta,
aurrera begira



Ondorioak (I)

Jaiolekuak eta bizilekuak, biek baldintzatzen dute hiztunen portaera.

Batek hizkuntza-sozializazioaren baldintzak ezartzen ditu eta besteak, erabilera erosorako aukerak. Ekosistema linguistiko batek bizitoki mugikortasunetik jasotako hiztunak bere dinamikara moldarazteko duen gaitasuna partziala da: hiztunen dentsitatearen eta mugikortasun fluxuaren tamainaren arabera.



Ondorioak (II)

Arnasguneetan nagusiki erdaraz aritzen diren hiztunen gehiengo oso handiak du jatorria ingurune erdaldunagoetan.

Ezin da ulertu arnasguneetako euskararen erabileraren bilakaera, zonalde erdaldunagoetatik heldutakoen eragina aintzat hartu gabe.



Ondorioak (III)

Erdararen nagusitasun handiko eremuetan euskaraz aritzen diren hiztunen artean pisu ohargarria dute euren jatorria ingurune euskaldunagoetan dutenek.

Ezin da ulertu erdararen nagusitasun handiko eremuetako euskararen ekosistema, zonalde euskaldunagoetatik heldutakoen eragina aintzat hartu gabe.



Ondorioak (III)

Euskararen nagusitasun eremuetan dauden baldintzek, nagusiki euskaraz ariko diren hiztunak sortzeko eta erreproduzitzeko ahalmena ematen diote hiztun komunitate osoari.

Horrek ez du tokian bertan soilik eragiten, lurralde eremu askoz zabalagoetan baizik; baita euskal hiztunen komunitateak erreproduzitzeko zailtasun eta oztopo handienak dituen eremuetan ere.



Gogoeta batzuk, aurrera begira (I)

Ikerketari dagokionez

Bizitoki-mugikortasuna kontuan hartzen duen ikerketa ildo demolinguistikoa (adb): bizitzan zeharreko bizitoki desberdinak, aiton-amonen belaunaldirainoko azterketa, jaiotza-uneke baldintza sl...

Mugikortasuna bizitokikotik harago (adb): lana edo aisialdia

Ikuspegi kualitatibotik eta etnografikotik (adb) biografia linguistikoan ekosistema soziolinguistikoaz aldatzeari lotutako bizipenak



Gogoeta batzuk, aurrera begira (II)

Ezagutzatik esku hartzera

Dimentsio espazialean arreta: beste adierazle batzuk kontuan hartu (bizitokikoak, laboralak, aisialdikoak, komertzialak...) euskararen erabileraren erraztaile eta oztopatzaile gisa. Hizkuntza politikan eta esku hartzean hautuak.

Esku hartze publiko eta sozialean hirigintza, lurralde antolaketa, mugikortasuna, eredu ekonomikoa edo espazioaren konfigurazioan eta erabileran zeresana duten faktoreak kontuan hartu



Gogoeta batzuk, aurrera begira (III)

Lurralde-jatorri erdaldunagoko biztanleria arnasguneetan

Harrera. Euskal Herri barneko bizitoki-mugikortasunari lotutakoa ere landu. Arnasguneetako baldintzak bermatzearen erronka partekatu eta baliabideak eskaini.

Hizkuntza-politika aurreratuak. Lurralde hauetan eguneroko mintza-jardun arruntean euskararen erabilera nagusi izateari eusteko balio dezaketen esku hartzeak praktikan jarri.



Gogoeta batzuk, aurrera begira (IV)

**Lurralde-jatorri euskaldunagoko
biztanleria erdararen nagusitasun
handiko eremuetan**

Kontzientzia hartzea. Arnasguneetako eta zonalde euskaldunenetako baldintza soziolinguistikoak bermatzea helburu komun gisa

Ekinbide berriak. Adibide gisa, erdararen nagusitasun eremuetan euskararen presentzia handiagoko eremuetatik heldutako hiztunei ahalduntzerako harrera, saretzea...

Mila esker!



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

a.basurto@soziolinguistika.eus

iiurrebaso@uema.eus